Euskaleriko berriak

GIPUZKOA

Albiztur

UTSTXO BAT ZUZENDU

Nik, nere uster beintzat, zuzen bialdu aren, utstxo bat arkitu nuan nik emendik bialdutako berietan azkeneko ARGIA'n: au da, Luistarak Loyola'n egin genituen Gogo-Jardunetan Berobi'koak 2, Oyarzun'goak 2 eta Lezo'koak beste 2 an izan zirala ez zala agertu, alegia.

GOGO JARDUNETAN

Arakama'tar Gregorio, gure Eretore jauna, Arantzazu'n izan zan aureko astean.

—«Goikoetxe»'ko Laskibar'tar Maria, Mariaren alaban lendakariz (presidenta), «Ureta»'ko Beraza'tar Euxebi, «Urkidi»'ko Galarraga'tar Maria, «Oria»'ko Erezola'tar Rita, «Muñaburu»'ko Erezola'tar Meltxora eta «Alparo»'ko Laskibar'tar Anparo, seiak Mariaren alaba zintzoak, Loyola'n izan ziran ¡Oso ederki!

Negu onetan geyago ere,
joateko asmoan dabiltza,
Loyola'n ondo ikasten baita
txit bearra zaigun jakintza.
Jakintza ofekin ikusten degu
nola maitatu Eliza,
t'Eliza asko maite dutenak
artuko dute emaitza.

TXOLARTE ALDIAN

Igaro aldian joanak dirade
uso, kurilo t'antzarak,
eta ondoren etofi ere bai
neguko egoaldi kaskarak.
Sua ederki egiten dute
igartutako egurak,
eta zer jana badegu aurten
Jaungoikoari eskerak.

Atari aldeak lokarti daude
udaran legor ziranak,
eta gariak erein naiean
giro-zai berriz gizonak.
Aizea oztu du, gauak luzatu,
eta laburtu egunak,
t'ilobatxoentzat gaztañak pozik
eretzen ditu amonak.

Zofari bildur ez dionakin
kontuz ibili mutilak,
t'oraindik ere bilatzen dira
irin txarrezko opilak.
Tantai gerra beren mokoaz
zulatu oi dute okilak,
auzo t'eiran kaltea berriz
kristau oker-ta txakilak.

Luistar.

Altza

MIXIO EGUNA

«Itufi-goxo» idazle trebeak iragarri zuan bezela, il onen 3'an izan genduan altzatarak Mixio-eguna.

Egun entan bada, goiz goizetik etaoso sari azi ziran Jaun artzeak bi txadonetan, ikusten zala, notin asko Mai Santura biltzen. Nik uste det eri geiena bildu zala.

Meza nagusiak bi elizetan ederak izan ziran, bietan itzaldiakin. Gero afatsaldean ordubiterdietan, batu ziran bi txadonatakoak Santa Barbara ermitatxoan eta andik ibilaldia eder eta pozgarri batean bildurik Deun Marzial'en txadonian. Emen puntzio labur bat egiñ ondoren, Mixioko eta Luistarren batzokian eta, notiñ askorekin izan ziran Mixio'etako ikuskizunak.

Zorionak eliz gizon eta gañerakoai, aiñ ederki egun ori antolatu eta aiñ emaitza ugariak emango aiñ anaitasun aundian egun au igaditulako, eta danok poztu gaitezen ro gendualako .

IZPAR BELTZA

Gaxorik luze-xamar egon ondoren, il da Aizpurutxoko Berra'tar Joxe Manuel. Bere iletan jende asko bildu zan, onela adierazirik zeñen lagun asko zituan. Bere lantegiko lagunak Meza eder bat atera diote igaro dan igandean. Lagunetzen diegu Lere sendikoai atsekabe onetan. (G. B.)

SASKI-NASKI

Luistarren gogo ardunetan izan degu Loyola'n Orbegozo'tar Kasildo, emengo luistara. ¡Jarraitu gazteak! Baita ere etxe Santu onetan izan dira Luistarren batzarean, Mujika'tar Jose M.ª apaiz jauna, eta Mujika'tar Balendin izlari azkarra. Gauz egin bearrekoak an azalду ziran noski.

—San Pedro eri politara juan zaigu bere amarekin, len izendatuta zegon Zugasti'tar Anixeto apaiz gaztea. Zorionak gure auzokoai ain apaiz jator eta abezlari bikañaren «jabe» egin diralako eta... lagun zar, lengo «kaskora» ere iñoiz etofi eta or arai goxuak diranian oju bat egin.

—Etofi dira bizitzera Amasa'tik emengo apaiz langile D. Jose Maria'ren anai arebak. Ongi etorriak.

—Egunero jende asko bildurik eta oso elizkizun ederak egiñik, egin da Animaren bederatziurena. Oso ederki erantsun du jendiak eta jarraitu berriro ere orela.

—Emengo euskaltzaleak geren irakasle dan Arana-Goiri'tar Sabin' eri ezkeiñ nai diogu Meza bat. Iragarriko da egunerokuetan noiz izango dan.—*Altza'tar.*

Eskatu
aitu bañan len
Tolosa'ko MOKOROA'ren liburutegira
Brabante'ko Jenobeba'ren
negargarizko bizitza
162 bertsotan Erenteriar Zapirain'ek idatzi berria
30 zentimoan bakoitza
Amabineka artzera merkeago
Arrapazka daramazkie
Eskatu len-bait-len
aitu bañan len

Antzuola

SALTZEKO MODUA

Gure ARGIA eder au saltzeko ezdago modu oberik uri guztietatik idaztea baño, eta idatzi biar da iñori kalterik egin barik beti egia jartzen dala. Baña badira uriak Gipuzkoan ARGIA'n agertu gabiak, eta alegin guztia egin biarda uri guztietatik bialtzen kontu asko.

GALDERA BAT

Gizon irakurle zintzo batek galdetu ziran zelako garia erain biar zan gari ona eta asko artzeko.

—Nik erantzun non erain biar zala beste etxe bateko garia eta modu onetan. Ekarri zazu bear dezun baño azi geiago eta dana zabal-zabal egin zazu izara baten gañean, leku on baten eta apartatu garirik onena kaskar guztia atzera ¡argatzen dala eta ikusiko dezu gizon zelako garia artuko dezun.—¡Jesus, idazlea, noizko apartatu! —Bada nik esango dizut zuri arto bururik onenak apartatuaz eraiteko, eta or igarotzen dezun denpora beti ondo dagola. Eta orain nik galdetzen diot ARGIA'ri ondo eran tzun dioten edo ez.

JUAN ETORRIA

Gure erretore jaunan etxean igaro ditu egun batzuk berriz Arebalo Galparsoro'tar Natibidade'k berriz senar zintzo Teleria'tar Kasto'kin. Emendik Barzelona'ra, ikusteko ederen batzuek omen dade eta oek ikustera. Ondo ibili.

SOLDADU

Juan dan astean jua nda gure pelotari Lete'tar Jose, Melilla'ra, bere zeregiña betetzera. Jaungoikuak lagun deizula lagun. Jose.

EZKONTZAK

Lengo astean esan bezela ezkondu dira Uzarraga'ko elizan Larrea'tar Ines eta lagun Azkoitikua jun dan ortegunian.

—Baita gañera ordurako ARGIA irtenda egon eta larunbatian «Aitza» baserriko Irizar'tar Ana, «Irissaungo» Joxe Mari'kin.

Danori opa deutzuet urte askuan ondo bizi zaiteztela osasun eta bakiakin. Eta etxekuai erakutzi dotriñia.

SOR INES

Segurako uri politean arkitzen da moja zintzo eta langile bat, irurogei urte Jaungoikuaren zerbizios igaro dituana. Gure uriko alaba da, kalebarrengo Inocenzio Jauregi bizi dan etxean jaiotakua, Madariaga'tar Sor Ines. Eta ez du merezi mon ja Santa onek arri laburtu bat jartzia etxe onetan. Balio gutxiagotan jendea ibiltzen da euren buruak apurtzea. Nik esaten dotzut Sor Ines zerua ondo irabazi dezula. Bere senide guztiei, Zorionak.—*Paape.*

SOLDADU KUOTAKUAK
EKIPOAK neufiz gain; 18 jauzki edo prendadunak, ugalak, polainak eta oñetakoak. 285,50 laurlekotik aurera.
Gaso, 4.—Ufutfizkiña 11802 eta 13678
DONOSTIA

Arrasate

IBILI ALDIETAN

Egun batzuek igarotzen dago Barzelonan Bezuzta'tar Dagoberto, gure alkate izandakoa eta «Union Cerrajera»'ko enpliau aundienetakoa, bere andra eta familiarekin.

—Jun zan Donostira emen denpora talde bat eginda Gefa'tar Karlos j. eta bere andrea.

—Jun ziran Donosti'ra Gorosabel'tar Jesus eta bere alaba biak.

Ondo ibili.

MARUEKU'ETARA

Il onen 3'an egin zan Afrika'rako sorteoa eta efi ontatik erori dirade 3 mutil: Ugarte'tar Alejandro, Julio Rodriguez eta Azkoaga'tar Felix.

Ondo juan, ondo ibili eta ondo etofi lenbailen.—*Kurtze Txiki.*

Soñeko ebakitze irakastola
Amabost egunean erakusten du IZA'tar EUJENIAk mota guztietako jantziak itzurik eta koloreekoak gizon, emakume eta aurrenak ebakitzen, «Sagardoi»'eraz.
Maistrak euskeraz itz egiten du
San Martin kalea, 29, 4'ren bizitza ezkerretara
DONOSTIA

Arua

ARUA

ZURU MURUA

Tximist argia dala bide, aspaldi onetan zer esana badabil emen. Ezin degu buruan sartu, zer ta nola izan leiken; dana dala, denborak esango digu, ta orduan gure iritzia azalduko degu.

EZKONTZA

Joan dan ostegunian ezkondu zan Iraetako Landa'tar Patxiku. Bizi bide berian, zorionak!

SOLDARU ALDIYA BETETZEN

Donosti aldian egun batzuek igaro ondoren, Zubimendi'tar Danjel, mutil gaztea, Melilla joatekoa da. Lengo gafaztasunik ez du eduki bear Melilla izenak, alaz guziz ere, lenbailen gure artean ikusi nai genituke ofelako gazte onak.

BATAYUA

Presalde-goiko Martiñ'ek Iran duan alabatxua, astelen afatzaldian batayatu zuten.

Pontian jasotzen, Egaña'tar Mariano.—*Ziolar.*

Azpeiti

SABINO ZANAREN ALDE OTOITZAK

Arila'n 24'an zortziretan meza ixila erespontso abestuarekin, eruki etxeko txadontxoan. Euzkal zaleak, al dezuten danak eliz politartan gaur igandez.

NASTE BORASTE

Ezkontzekuak dira laster Imar'tar Ilario emengo mutil peruna, Zularika'tar Domeke, Oikiako alabatekiñ.

Eta Korta'tar Balentin «Aldagoiti» basetxeko mutila, Itufalde'tar Juana «Loitzo» basetxeko alabarekiñ.

Bi urtarrak urte askotarako opa dizuet.

—Olazabal'tar Bizente'ren emazteak mutiko bat izan du eta Sarobe'tar Balentin'enak beste bat. Zorionak gurasoai.

ERIOTZA

Gasotasun luze batek eraman du Etxaniz'tar Manuel mutil gazte ona zana. Leitze'n il da gizarajua. Efi artan ikusi gendun azken aldiz, prest zegon Jaunaren Gogoa egiñ zedin. Gazte gutxi bezelakua zan gizajua, leyala, umila eta biotz onekua. Bere sendi onari laguntzen diogu samintasunean eta irakurle Aita gure bat bere gogo alde. G. B.

Txalintxo.

Erena zure idazlia datofen asteen azalduko degu zenbaki onetan lekurik gabe geratu gera ta.

Bun edo tela inglesak
PUJOL
Jostuna
Garibai, 11—Donostia
Ufutfizkiña 1-24-59

Azkoiti

JAIMETARAK

Emengo jaimetar langile gasteak antzerki eder bat eratzekotan dabiltza aurki. Gogo-beroaz ari dira beren sayuak egiten egunero, Jaimetar Elkartean, euskerazko jostirudi polit batekin.

Ona dek ontan gogoz
lana egitea
basteak beti naia
aurea bidea
daukagunok lenbizi
Jainkoan Legea
t'au ufatu nai dunai
¡arpegi ematea!

Floriaga.

Donosti

EUSKO ETXEA'N BIGAREN ANTZORKI JAIA

Orduan baño lenago, antzoki jai ontarako txartelak amaitu ziran, ta atiak itxi biar izan ziran esarlekurik etzegoalako.

Jenden eman au pozgarria bada ere, bazuben igandean zaletasun onek bere aldi txarra. Asko ta asko biali ziran kalera ez gure gogoz Batzokia ortarako txikia dalako baño. ¡Antzoki koxkor baten jabe bagiña!

Gaxo, erruki ta ikastetxetako dirua sortzen dan bezela, ¿ez ote da eusko antzokitxo bat egiteko dirua emango duben jaun aberatz enbat sortuko?

Ez da naikoa esatea, ez juan erderazko antzerkiak ikustera, abetara juatia nai ez bada, eusko antzerkia jaiak biar dira ta ontarako abek biar bezelako lasaitasunakin ikusteko berriz, Antzokia biar-biarrekua da.

Tamala da auxen, baña egia, bada gaztedia eusko antzoki jairik ez dala ez da etxe zuloan sartuta katuakin jostatzen, jai ilunabarretan egongo. Gaztedi on ta euskalduna nai badagu, jolas ta antzeski euskel dunak eman dezaizkiogun, gaztientzat antzerki euskalduna, zaharrentzat olo salda koipetzua bezin biarrekua da, biar bezelako gaztedia orain euskaldun dan gaztedia, axirera ere euskaldun izatea nai bada.

Ta esanik ez dago, Eusko Etxea plei plei zegon, oraindik ango algara, par ta txalo otsaren burundara, belarrietan darabilkigu.

Garbizu, ereslari yayoak, lagundu ta Laborde jaupari zintzo ta abeslari yayoak «Mari Domingo» abestu zuten, izanik oso txalotuak euskel zale ta ertilari biyak.

Antzerki bitartietan Eusko etxeko bazkide dan Jorda Galastegi gazteak oso egoki eusko eresiak jo zituben.

EUSKO ETXEA'KO ANTZOKI JAIAK

Gaur igandea, afatsaldeko 5'terditan izango da irugarren eusko antzoki jaia.

Antzeztuko da, «Neskazar», iru ekitaldi dituben antzerki oso pareragilea. Alzaga, eusko antzoki gaian buru dan jaun azkarra beraren egile da.

Banaketa: «Zaturdiña» Areitiaurtena anderea; «Mikela Karmen» Eizagirre anderea; «Felipatxo» Bikandi anderea ta «Andre Filomena» Lizarraga M. J. anderea.

«Patxiko Iñazio» Arizmendi jauna; «Kitolix» Beorlegi jauna; «Miel-Anton» Ugartetxea jauna; «Pelo» Andonegi jauna; «Mofoya» Isasa jauna.

Txartelak, oitu bezela, bañan az kar ibili, bestela «kapote».

ARANA ETA GOIRI'TAR SABIN'EN GOGO ALDEZ

Donostiko lagun abertzaleak aginduta, il onen 25'an, goizeko 8'an, Okendo kaleko eleizan, Sabiñ (G. B.) gogo aldez jaupa ixil bat izango da.

Datofen ilaren 1'an, Josu lagune tan, goizeko 10'an, beste jaupa nagusi bat, abesturik jaupa ta ondorengo «Liberame», il abestia, Eusko Etxeko abesbatzak.

Euskel efi, ta euskera gaitik, bere izate guzia eman, ta bere berdiñik oraindik sortu ez dan, euskalzalien irakasle, ta kistar zintzo onen aldez otoi egitera, etofi arren elizkizun abetara, zuen biotza, euskeldun ta euskelzale dezuten guziak.—*Atarrene.*

EZTARI, SUDUR ta BELARRETAKO MIÑAK SENDATZEKO
Dr. Jesus M. Olarreaga
Klinika «Ntra. Sra. Izaskun»
TOLOSA
Goizean: 10'etatik 1'era.
Arratsaldean: 3'etatik 5'etara.

Beasain (Matxinbenta)

ARGIA'n emengo berriak ez datorkigulako lenengo aldiz idaztera nua emengo berriak.

«Lugin» ¿Zer egiten dezu?

¿Alpertu egin alzera? (1)

Barkatu ba nere atrebimentua.

—Emengo mutilak oso elizkoitu zaizkigu. Ejerzizioak egiten izan dira «Lugin»'en bi semiak beste batzuekin.

Ilaren zortzian etofi zitzaigun Aita Agirre agurgarria Luistarren bilera jartzera. Egi ederik esan digu. Igande arratsaldean ikusi genduan bilera ederra jartzen. Egin mutilak ofen esanak zintzo.—*Ondo nabil.*

«Lugin»ek bialdu, ta geok jarri ez azkenekoa gure nasketagatik, ofa egia. Baña jarrai zuk ere idazten.—*Luzear.*

Errenteria

BEDERATZI URENA

Astelenian zortzi amaitu zan animan laguntzarako, urtero egiten dan bederatziurena. Emen bertan il diran animen aldeko otoiztxoetan ozte aundia bildurik amaitzen dala.

EZKONTZA

Gure lagun euskeltzale on Etxebarria'tar Andres, Oiartzun'go neskatil on batekin il onen barruan ezkontzen da. Zorionak bialtzen dizkizuet, ta alkarrekin urte askotan izatia opa dizuet.

GAIXO ALDIAN

Entzun dtanez gaixo egon biardu Ordizia'n bizi dan gure lagun Erauskin Erotari bersolari ta idazle azkarra. Guztiok eskatu dezaiogu Jaunari lenbailen osa dedila.

ERIOTZA

Larunbatian zortzi Jaunak Bereganatu du Elizegi'tar Jose ikurtanak ta Doipuruaren onespena artu ondoren. G. B. Nere samin agurra sendikoai ta irakurle guztiei, bere gogo aldez eskatu.

ARANA ETA GOIRI'TAR SABIN'EN

il urte urune dala ta esango da Uri onetako txadonian, igande onetan 10'etan Jaupa aundi bat, Jaunari eskatuteko bere eta il diran lagunen animen aldez. Otoitz egitera etofi zaitezte danok esandako ordurako.

AMA MIRARITSU IRURENA

Illa onen 25, 26, 27'an ilunabareko 6'terditan asiko da, txadon aundian. Lezo'n dagon Jaupari azkar Esnal'tar Dabid jaunak txonitzak egingo ditu erderaz.

ORI BELTZA

Igaro dan larunbatian Jaunak Bereganatu du Iriberi'tar Frantziska. Ikurtonak ta Doipuruaren onespena artu ondorren G. B. Nere samiñ agurra sendikoai ta ARGI'en irakurle guztiai Aitagure bana bere gogo aldez ezkatzen zaie.

Astelenian ilketa ta obiratzez izan ziran, ozte aundia bildurik, merezi zuan eran. Irugarren senizae ona izan zan. Jaunak betiko sadetzan sartua zegon, ta bera jarrairia emango al dio.—*Itufalde.*

YUTE OLAK
Ziriko (arpilera), zofo, lokarri, txorte trenza) joskari, lokarritegirako ari lodiakofo-mutufak lotu ta josteko ariak, eti abar. Zuzenpidea
VICTORIANO CELAYA
APARTADO 1.—ZUMAYA

Lasarte

MIXIOEN ALDEKO JAYA

Juan dan asteko ARGIA'n aurera tu gendun bezela igandean ospatu gendun erri onetan Mixioen aldeko jaya. Inguruko erri guztietatik ozte aundia bildu zan.

Goiz-goizetik jende asko elizatu zan Jauna artuz egun guztiko elizkizunetarako bear bezela adelatuaz. Seletako eta zortzietako mezetan jende asko ikusi gendun eta amarretako meza nagusin ere eliza bete betea zegon. Iru meza oietan Garteiz'tik etofitako apaiz jaun batek egin zituan itzaldiak euskera garbian. Itzaldi ederrak egiaz berari entzun genizkanak. Afatsaldeko eleizkizuna izan zan danetan zoragarriena. Ibildeuna batez ere oso ederra eta egokia jantzi politez apaindua ikusi gendun. Txinatarrak ber-berak ziruditen emengo umetxoak eren jantzi aiekin. Makiñabat lan artu zuten emengo neskatxak jantzi aiek antolatzen bañan esan gendezake aien lanak etzirala alperrikakoak izan.

Ibildenak erri guztia igaro zuan Brijidatarren eleizatxoari ere ikustaldi bat egiñaz. Kanpotar asko ikusi gendun eta danak arituta zauden alako gauza polita ikusita. Eleizkizun onetan itzaldia Donostiko apaiz jaun batek egin zigun (euskeraz onek ere) eta gure itz motelak ezin lezake adierazi zenen ederki egin zun.

Umeak ibildeuna asko eta asko plaitu zuten beren abesti xamur eta politekin eta jende guztia poz-pozik egon zan aiei entzuten.

Eleizako abeslariak ere lana gogor egin zuten bada Meza nagusie Goikoetxea jaunaren Meza abestu zuten Rekondo anaien laguntzarekin. Oso ederki abestu ere gañera.

Mixiolariei laguntzeko diru biltzen ibili ziradenai efez nabaitzen zitzaioten asko bildu zutela eta gure onekin zenbaterañoraino poztutzen geran esaten zaiztzo da.

Kanpotar asko agurtu gendun egun onetan eta beren artean Afua ko «Ziolar» idazle iaioa.

U.S.A.-A.S.
PIERCE
KAMIOI AMERIKANOENTZAKO PIEZAK-BANDAJIAK-DINN BATERIAK
ERA GUZIETAKO BALBULAK
«COMPTOIR AUTO BASQUE»
BEHOBIE (Francia). Ufutfizkiña, 8.

Ez degu idazti au amaitu nai gure erretore jaunari eta bere laguntzale guztiai gure zorion biotzekoak eman gabe.

AIZKORA APUSTUA

Datofen ilaren lenengo egunean aizkora apustu bat jokatzekoak dira Lasarteko ipodromoko zelaian.

Bi mila peseta zenek jaso jokatuko dute Tolosa'ko Lasa'tar Iñaki'k eta Astiasu'ko Ondartza'tar Juan'ek. Ez dira gure gogoak diru apustu oiek baño jendearen jakingarritzaz ipintzen ditugu emengo berrietan.

Apustu ori 45 atz edo pulgadako 7 enbor zeñek lenago ebaki izango da.—*Saldatxur.*

Lezo

ERIOTZAK

Orbegozo'tar Ipolita, 9 urtian gaxo egonda gero igande gabean Jaungoikoak Bereganatu digu Goyan bego.

Orixe bera gertatu zayo gure adixkide dan Agirre'tar Dionisio'ren emazteari. Astearte arratsaldean Goiko Jaun altsuak deitu, ta joan izan bear zuan. G. B. Bakoitzan elizkizunetan jende asko izan zan. Biren sendiari nere samintasunik leyalena, eta irakurle, Aita gure bana beren animen alde.

Azkue'tar Juan Jose'ren emazteak, aur bat izan du.

JAYOTZAK

—Bata Salaberia'tar Joakin'en emazteak, ere irugarren semia. Zorionak biyori.

NASTE BORASTE

Etxetik irten gabe, oso erax ezagutzen degu, emengo sagarduak, indar aundikoak dirala; aspaldi-txuan naiko abesti polit entzuten ditugu. Milan'en baño abeslari geyago inguru abetan, eta ¡nolako sasoyakin Bai, erax esagutzen da beren denboran ezdutela tomate gorriñ asko jan. Ori dek sasoya ori.

MUSIKUEN JAYA

Emengo musikuak ere beren zaindari Santa Zecilia, tzaz ezdaude aztuta, irikitzen daoztela ikusten ditugu egun ori irixteko, urtero bezela jarraituko dute umore onian beren «barikote» ta «kaxuel» ta gañerakuakin.—*Irri zubi.*

EREGE OSTATU ZARA
(Gran Hotel Central)
JATETXEA
Mayor kalea 3
(Bulebar'eko aldamenean)
DONOSTIA

Mutriku

ELIZ GAIAK

Jesus'en Biotzeko salekoak zuten ileroko jaunartze ta arratzaldeko elizkizuna. Bertan Meadaro Garagartza'ko txaunburu jaunak egoki baño egokiago zuzendu zien itzaldia.

MEZA BAT

Igande onetan ta zazpiterdietan komentuko elizan emango da Meza bat Arana Goiri'tar Sabino'ren gogo aldez. G. B.

NEKEZ BAÑA...

Ni ez naiz gai onetzaz idaztekó deitua baño luma artu detan ezkero zerbait jartzea nua.

Igandean bigarren ezkondeia egin zan gure lagun Egurbide'tar Jose, Etxabe'tar Irenekin. Ori dala-ta bere lagun geadenok egin genduan Mutikuarrak ainbat esagutzen degun «saliria» notintza ugari begira egondu zan ta irixi askotakoak ziran: batzuek zioten ongi zakitela afaunlanian ta besteak berriz «Ematiarren» ibilgiñala; baña azken orduan jakindu det nola arraunlari ospatzu oiek artu dituan gizon aberatz batek eta ondo ondo «gobernatuta» «Itxas aurre'ren» «saliria» egiteko dirala.

Aberatza izango da jaun ori Tela kontuak atera leikez lenengotik bada Plodez'ek bakarrik kilometro bat bakalau bear ditu eguonean ta. Iluntzean «Buenos Aires» jatetxean genduen afaria ogeita amasei lagun bildu giñan senidearekin nastuta. Ondo jan ondo eran ta bapo egon giñan, pake ederrean. Bai zan antxe abesti goxo ta dantza ere bai naikua «señorita» batzuek konbidatu nituen dantzarako baño ¡¡nola egin!! anka guztiak ospelez betiak neukazen ta asketzi neskatila gazteak urangoan ospelak sentuago serbitua Andonegi'tar Madatutzian egingo degu ta.

Janaria ongi maniatua eta obenuela'k eta Etxabe'tar Rosariok. Gure esker ona guztiori.

Eta zueri ezkondu bear zeratenoi zorionez betetako egunak opa dizuet eta beste bat arte.

NASTU TA LABUR

Emen agurtu degu Bereziartua'tar Iñazio ta bere emaztea.

—Gernika juan dira Etxabe'tar Irene ta bere anaia ta Barrenetxea'tar Maria nezkatila gaztea.

—Egun batzuk emen igaro ondoren itzuli da Eibar'era Garagarza'tar Juanito pelotari gazte ta gure laguna.

—Osakuntz bat egitera eraman dute Donostira Basurko'tar Felisa andrea. Axkar sendatu.

—Igande onetan idukiko dute beuren jaunartzea Luistarrak. Beragatik erregutzen zaie zintzo zintzo etortzia.

GAU GURTZALEAK

24 gaubetik 25'era emengo gau gurtzaleak idukiko dute beuren gurtazun orokorra edo «generala».

Gau guztian ateak irikiak egongo dira ta Gurtzaleai lagun egitera inste det etofiko zeratela egun ofetan.

Guztiz egokia ta beartsua da, gure aurretik juan diranagatik otoi egitea; bada ofetarako da gau onetako gurtazuna ta saiatu gaitezen guztiok eliz jai onetara etorzea.—*Itxas aurre.*

ETXE-LUR EDO FINKA SALEROSKETA (FINKAK EROSI NAIZ SALDU), ETA HIPOTECA ORDAIN EDO PRESTAMLIAK
Ixilpean eta laister
eriten dira artu-emanak.
Lantegia (Oficina) 10'etatik 1'era eta 5'etatik 6'etara idekia.
GARMENDIA
Reina Regente, 3.—Donostia
Ufutfizkiña, 18217

BATARITA, ALTUNA ta MENDIZABAL
1900 URUTIZKIÑA
PATARAK.—MARKADUN EDARIAK ERRIOJAKO ARDO BEREZIAK

COGNACS BEREZIAK
ARDOGOJAK TA UPELTEGIDUNAK
Lantegiak: Henao, 36. — BILBAO

SEGUROAK
AGIZKO ESKIER-EGINTZA
Heliodoro Zatarain. — Mayor, 12, 1.º — Donostia
Bazkun auen ordezkaritza:
Londres'ko «Northern» Assurances Company Limited
Suaro (sualdi-afizkuetzaz eskier-egintza); lan bitarteko erlasun, eta beste edozein eri edo gaxotasunaren aldartetzaz, eta automobil, kamioi, motoziklets, gurdi ta abar. Eskier-egintza
«La Francfort» Franfort'eko Agizko Eskier-Bazkuna
Itxasoz eta lufez bidaltzen diran salkaien Eskier-egintza (transporteak aseguratzea).

Dr. Olaizola
Guzitariko sendakintza (Cirujía general)
Rayos X, Rayos Ultravioleta eta Diatermia
ZUMAYA'n, Ufutfizkiña 90, egunero 11'etatik 1'etara eta 5'etatik 6'etara.

Gaxteen sala

GARAGORI'TAR JULI'RI

Ene laguntzo maitea. Poz posik irakurri ouan zuk neri egindako eskutitzatxoa. Izan ere ain egoki egiña negoen Juli.

Ta zure eskutitzatxoan esaten ziñun «Berkatuko didazuten uste onon daukat» Barkatzen dizut baiña geyago ta geyago izan baliz ere ¡a bastatzen degu. Juli batek besteri ebakuak barkatzen. Gañerakoen ez litzaike inoren gure etsaiga bear bezela maitatzea ere.

Baita gu ere «Txapeltzarako Ikasketa Ikastola Tiburtzi eor den ¡Ikasleak, Baña Juli zuri idazten naiz beriz zu beziñ egokia, Juli, berezko etofia beardu ortan ere.

Ene Juli, esan bear dizut beste gauz bat ere garbi agertuta, izen ordearekin baño... Edo ori gaiski esan det, nik baño obeto dakienak ¡arra dago ta.

Ta, Juli, zuk beziñ ondo ez idatzi arren nayatuko naiz nere zere ordaintzen. Ta beriz len esan aizuna: uste det zuk ARGIA artzen izango dezu ostieleako, baño neri etzat auatzen ofen agudo baiñ ¡gande arratsalderako, ta zer idatzi zentsatzeko denbora gutxi xamar ni bezelako buru gogorrantzat. Gañera lanak izarre luf oraiñ ere ozegin dit amak arratserako gastañak prestatzeko. Baño arrapatuko det ARGIA'ra idaztekó año beta eguez espada gabez. Gaiski etan ¡ziak barkatu.

Txapeltzarako aukeratu. Jakiña eskutitza ez nuen ongi idatzi le baño konforme geldifu nitzen: pixkeka pixkeka ia urengorako ikasten dedan. Esaera zarrai jarraituz (beti gerora esperantzetan bizi bearko degu). ¡Beraz eziñ yoan Donostira!

Baño ain atzegiñ zat neronek joan bear bano bezela. Zuk juan bear dezulako, Juli.

Zuri eskutitzatxos aiñ aundia tzarik nik laburra iñen badet, ez da ala ogi lanen; baño duanak duan abiñdades. Basetitar motel bat bai naiz ni, ta ez naiz aundirik gabe izan. Koitu labur bat izateko es

Agur, nere biotzeko Juli maitea.

Arana'tar Tiburtzi.

GARAGORI'TAR JULI'RI

Agur Julitxo maitea: Lengoan, ARGIA irakurtzen asi nintzan; eta, zure eskutitza agertu zitzaidon. Lotsa gustik, arestian etxe aurretik igaro dan berribil batean bialdu ditut; eta, ona emen ni, iñork aginduta ez didan zelaian, zerbait egiteko asmoz. Zure eskutitza, beste batzuekin zan; baño, aik, nere lenbiziko eskutitzan nioza beteko baliñ badet, norbait ere ¡¡¡endu bear izion gaurko au, eta ofeastik zuri idazten asi naiz.

Gaur, ostegunez, azilarra amaitzuan ari pazu lefotxo auek egiten. Berandutzango asiko banitz, gauza ¡¡¡